# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

### 1069

32/2005 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen bingo-jokoaren araudia aldatzea, Dekretu honen bidez egingo dena, bingo arruntaren eta bingo bereziaren sarien ehunekoen banaketa teknikoki hobetzean oinarritzen da, aipatu araudia indarrean dagoenetik egiaztatutako esperientzia kontuan hartuz.

Bestalde, bingo bereziak beti kopuru bat hasieratik izan beharra adierazi da; horretarako bingo horren hasierako dotazioa izango den erretserba ezarriko da.

Horren ondorioz, Herrizaingo sailburuak proposatuta, Jokoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzako Kontseiluak 2005eko otsailaren 22an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudiaren 37. artikuluaren 3. paragrafoa aldatu egiten da eta era honetan idatziko da:

«37. artikulua.

3.– Bingo Nagusiko eta Bingo Txikiko sariak, bestalde, hauetxek izango dira: joko-modalitate hori duten lokaletan jokatu diren txartelen zenbateko osoaren %0,1 eta %0,2, hurrenez hurren, pilatzetik lortutakoak.

Aurreko paragrafoetan aipatutako zenbatekoak bingo tradizionalaren jokorako sarien ehunekotik kenduko dira partida bakoitzean, gehienez 200.000 euro (bingo Nagusia) eta 25.000 euroraino (bingo Txikia) pilatuz.»

***Bigarren artikulua.***– Otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudiaren 41. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoak aldatu egiten dira eta era honetan idatziko da:

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 1069

DECRETO 32/2005, de 22 de febrero, por el que se modifica el Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La modificación del vigente Reglamento del juego de bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que mediante el presente Decreto se realiza, se fundamenta en una razón de mejora técnica de la distribución de los porcentajes de los premios del bingo ordinario y del bingo berezia, habida cuenta de la experiencia acreditada desde la vigencia del citado Reglamento.

Por otra parte, se ha constatado la necesidad de que el bingo berezia disponga siempre, en su inicio, de una cantidad, para lo cual, a dichos fines, ha de establecerse una reserva que constituirá la dotación inicial de dicho bingo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 22 de febrero de 2005,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el párrafo 3 del artículo 37 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactado del siguiente modo:

«Artículo 37.

3.– Las cuantías de los premios del bingo Mayor o Nagusia y del bingo Menor o Txikia, serán las que resulten de acumular el 0,1% y 0,2%, respectivamente del importe total de las tarjetas jugadas en los locales del juego del bingo adheridos a esta modalidad de juego.

Las cantidades a que se refiere el párrafo anterior se detraerán en cada partida del porcentaje de premios destinado al juego del bingo tradicional, acumulándose hasta el importe máximo de 200.000 euros y 25.000 euros respectivamente, según se trate del bingo Mayor o Nagusia o del bingo Menor o Txikia.»

***Artículo segundo.***– Se modifican los párrafos 2 y 3 del artículo 41 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactados del siguiente modo:

«41. artikulua.

2.– Sari «bereziaren» zenbatekoa hauxe izango da: joko-modalitate hau duen lokal bakoitzean jokatu diren txartelen ageriko balio osoaren %2,20 pilatzean lortutakoa.

3.– Jokalariek sari «berezia» irabazteko aukera izango dute, artikulu honetan ezartzen den eskalaren arabera, saria aipatu zenbatekora heltzen denean. Sari «bereziaren» zenbatekora helduz gero aipatutako ehunekoa kentzen jarraituko da eta erretserba berezitzat gordeko da; ondoren, erretserba hori hasierako dotaziora pasatuko da, aurreko sari berezia ordaindu eta gero.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 22an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

«Artículo 41.

2.– La cuantía del premio berezia será la que resulte de acumular el 2,20% del importe facial total de las tarjetas jugadas en cada local de juego que practique esta modalidad de juego.

3.– El premio berezia estará disponible para los usuarios cuando se alcance el importe señalado, de acuerdo con la escala establecida en el presente artículo. Una vez alcanzado el importe del premio berezia se seguirá detrayendo el citado porcentaje destinándose a reserva berezia para pasar esta reserva a la dotación inicial, una vez que sea pagado el premio berezia anterior.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### 1070

423/2005 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zerbitzuko erakundeetan, teknikari laguntzaile profesionalen lanbide-taldean hutsik dauden telefonista kategoriako destinoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen dira.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 31ko 349/2002 Ebazpenaren bidez, pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko, eta, teknikari laguntzaile profesionalen lanbide-taldean, telefonista kategoriako destinoak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu erakundeak) betetzeko aukeraketa-probetarako deia egin zen. Deialdi hori uztailaren 5eko EHAAn, 127 zenbakian, argitaratu zen.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 1070

RESOLUCIÓN 423/2005, de 1 de febrero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de los destinos vacantes en la categoría de Telefonista, del grupo profesional de Técnicos Auxiliares Profesionales, con destino en las organizaciones de servicio de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 349/2002, de 31 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Telefonista del grupo profesional de Técnicos Auxiliares Profesionales con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 127, de 5 de julio.